



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

2024ko azaroa

---

# BERBA-LAPIKO

**Garapen metodologikoa ahozko  
konpetentzietan aurrera egiteko**

Hedapena ikastetxeetan  
eta Digitalizazioa

---



**Proiektuaren Garapen Taldea:**

Olatz Bengoetxea Manterola – Soziolinguistika Klusterra – *Koordinatzailea*  
Paula Laita Pallares – Soziolinguistika Klusterra  
Agurtzane Azpeitia Eizagirre – Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta  
Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) – *Zuzendaria*

**Sekuentzia Didaktikoaren lantaldea:**

Leire Diaz de Gereñu Lasaga – Elebilab (Euskal Herriko Unibertsitatea)  
Ibon Manterola Garate – Elebilab (Euskal Herriko Unibertsitatea)

**Berritzegune Nagusiko Aholkulariak**

**Sustatzailea**

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila  
Soziolinguistika Klusterra

**Txostenaren idazleak:**

Olatz Bengoetxea  
Paula Laita  
Agurtzane Azpeitia

Soziolinguistika Klusterra Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain 943 592 556  
<https://soziolinguistika.eus/eu/> [kluster@soziolinguistika.eus](mailto:kluster@soziolinguistika.eus)

2024ko azaroa



Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziarekin zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

0 SARRERA .....	3
1 HEDAPENA IKASTETXEETAN .....	3
1.2 Aholkularitzako-prozesua eta lanak .....	6
1.3 Irakasleen balorazioak .....	9
1.3.1 Metodologiaren inplementazioa .....	10
1.3.2 Metodologiak izandako harrera .....	12
1.3.3 Prestakuntza .....	15
1.3.4 Balorazio orokorra eta proposamen batzuk .....	16
2 DIGITALIZAZIOA .....	19
2.1 Aurtengo lanak .....	19
3 ONDORIO NAGUSIAK .....	23

## 0 SARRERA

2024. urtean Berba-lapiko proiektuan hiru ildo jarri dira martxan:

1. *Hedapena Ikastetxeetan*
2. *Ekintza-Ikerketa 3.0*
3. *Digitalizazioa*

Txosten honetan lehenengo eta hirugarren ildoei helduko zaie:

Berba-lapiko egitasmoa ARRUE programaren baitan kokatzen da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantziatutako dirulaguntzaren bidez. Egitasmoa Soziolinguistika Klusterrak abiatu zuen 2017-18 ikasturtean Mondragon Unibertsitateko HUHEZIren zuzendaritzarekin. EHUko ELEBILAB ikerketa-taldeak ere parte hartu du proiektuaren hasierako urteetan.

Berba-lapiko proiektua hezkuntza esparruan euskararen erabileran eta konpetentzian sakontzeko proposamena dugu, batik bat testuinguru soziolinguistiko erdaldunei erreparatuko diena. Prestakuntza-ikerketa bidea eginez sakondu nahi da, euskararen ahozko konpetentzia praktikoa eta eraginkorra lortzeko irakasleen prestakuntzan, metodologia berriztatzean eta ikasleen garapen adierazleetan.

Jarraian, 2024an garatutako bi lan-ildoetan jorratutako lanak jaso dira:

1. **Hedapena ikastetxeetan:** Berba-lapiko aholkularitza eta jarraipena
2. **Digitalizazioa:** Berba-lapiko mundu digitalera eramatea

## 1 HEDAPENA IKASTETXEETAN

Hastapenetik, Berba-lapiko ikerketaren helburu nagusietako bat izan da eskuratutako ezagutza zabaltzea, hau da, hasierako bi ikastetxeetan lau urtez garatutako ikerketa horretatik ateratako ondorio eta ezagutza berria baliatzea antzeko egoeran dauden ikastetxeetan. Beraz, ildo horretan jarraitu da 2024an.

Hona hemen zabalkuntza estrategiari buruzko zenbait datu:

- 2023-2024 ikasturtean, **39 ikastetxetan** abiatu da egitasmoa: Arabako Lehen Hezkuntzako 10 ikastetxetan, Bizkaiko 18 ikastetxetan eta Gipuzkoako 11 ikastetxetan.
- **4114 ikasle inguru** aritu dira **hiru hilabetez** ahozkoahotasuna modu jabetu batean lantzen.
- **245 irakasle prestatu** dira ahozko hizkuntza lantzeko oinarrietan. Aurten lehen aldiz egitasmoa abiatu den ikastetxeetan LH1, LH2ko irakasle eta ikasleekin lan egin da; aurreko ikasturteetatik parte hartu duten ikastetxeetan, berriz, LH1, 2, 3 eta 4koekin jardun da.
- **Berritzegune Nagusiko 7 Aholkulariek** jaso dute prestakuntza. Gidaritza eta aholkularitza eskaini dute.

Egitasmoa ikastetxe berrietan modu eraginkorren zabaldu ahal izateko, irakasleek jaso beharreko prestakuntza egoki diseinatu eta plazaratzea ezinbestekoa izan da.

Beraz, aholkularitza egituratzeko bi plano bereizi dira. Batetik, Soziolinguistika Klusterrak (SL KLUSTERRA) eta HUHEZIK osatzen duen lantaldeak aholkularitza eskaini dio Berritzeguneko teknikari taldeari. Bestetik, horietako teknikari bakoitzak ikastetxe batzuen ardura izan du, guk eskainitako aholkularitza hori ikastetxean bertan gauzatzeko hango irakasle-taldearekin. Gainera, Berritzeguneko teknikariak giltzarri izan dira SL KLUSTERRA-HUHEZI lantaldeak ikastetxeetako egoeraren berri izateko, eta aholkularitzan zehar behar izan diren moldaketak eta egokitzapenak egiteko.

Zubi horiek ahalik eta eraginkorrenak izateko, etengabeko joan-etorrian proposatu da planoen arteko harremana. Alegia, ez da planteatu lehenbizi Berritzeguneko teknikariei aholkularitza osorik eskaintzea eta ostean haiek ikastetxera joatea irakasleak prestatzera. Horren ordez, Berritzeguneko teknikariei oinarri batzuk eskaini zaizkie, eta haiek oinarri horiek ikastetxean landu dituzte.



Horren ondoren, ikastetxeko prestakuntzaren deboluzioa egin diote SL KLUSTERRA-HUHEZI taldeari, eta taldeak materialaren inguruko prestakuntza eman die Berritzeguneko teknikariei, haiek gauza bera ikastetxean egiteko. Era horretako etengabeko joan-etorrietan proposatu da aholkularitza, Berritzeguneko teknikarien zein ikastetxeko irakasleen beharretara gure prozesu guztia egokitu ahal izateko.

## 1.2 AHOLKULARITZAKO-PROZESUA ETA LANAK

Hiru urrats nagusi nabarmendu dira prozesuaren antolaketan.

<b>0. URRATSA</b> Udazkenean	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Antolaketa eta koordinazio-lanak burutu.</li> <li>○ Agendak lotu.</li> <li>○ Ikastetxeekin harremanetan jarri.</li> <li>○ Ikerketarako ikastetxeak hautatu.</li> <li>○ Ikastetxe berrietan eta aurreko urtean parte hartu zutenetan proiektuaren sarrera nola egin irudikatu.</li> <li>○ <b>Oharra: taulan agertzen diren datak gutxi gorabeherakoak dira. Aukera dago horiek egokitzeko.</b></li> </ul>			
<b>1. URRATSA</b> Aste Santu aurretik	<b>ZEREGINA</b>	<b>ANTOLAKETA</b>	<b>DATAK</b>	<b>OHARRAK</b>
	<b>3 prestakuntza saio:</b>  <b>1. saioa: ahozko hizkuntzaren oinarriak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ SL KLUSTERRA-HUHEZI taldeak → BNAk prestatu.</li> </ul>	2023.12.11 9.30-12.30	Iraupena: 3 ordu. Ikastetxeetan bi orduko saioa emango da, baina aholkulariekin tarte luzeagoa hartuko da. Aurrez aurre.
		<ul style="list-style-type: none"> <li>○ BNAek → irakasleak prestatu.</li> </ul>	(2024.01.15-2024.01.22 bitartean)	Iraupena: 1,5 ordu. BNA-koordinazioa: Prestakuntza jaso ondoren, aholkulariak bildu egingo dira, euren artean gaia lantzen jarraitzeko.
	<b>BNA-koordinazioa</b>		1,5	Ahal dela aurrez aurre: ikastetxeetako errealitatea konpartitu, euren hasierako hartu-emana, gairen bat sakonago landu...

<b>1. URRATSA</b> Aste Santu aurretik	<b>2. saioa: hizkuntza errutina metodologia nahiz material didaktikoak.</b>	○ SL KLUSTERRA-HUHEZI taldeak → BNAk prestatu.	2024.01.22 9.30-12.30	Iraupena: 3 ordu. Aurrez aurre.
				Iraupena: 1,5 ordu. BNA-koordinazioa: Prestakuntza jaso ondoren, aholkulariak bildu egingo dira, euren artean gaia lantzen jarraitzeko.
		○ BNAek → irakasleak prestatu.	(2024.01.23-2024.02.26 bitartean)	Iraupena: 2 ordu. Aurrez aurre. Kontuan izan prestakuntza saioak amaitu ondoren, irakasleak tarte bat hartu beharko duela material didaktikoa irakurtzeko eta ezagutzeko (zati bat saioetan irakurriko da).
	<b>Jarraipen-saioak</b>	BNAek + irakasleekin jarraipen saioak.	(2024.01.23-2024.02.26 bitartean)	Iraupena: 45' saio bakoitzak. Online.
		○ SL KLUSTERRA-HUHEZI taldeak + BNAek jarraipen-saioa.	2024.02.23 (ostirala) 9.30-10.30	BNA-koordinazioa: Berba-lapiko taldearekin elkartu aurretik, 2. prestakuntza-saioaren ondorengo zalantzak, oharrak konpartitu.
	<b>3. saioa: material didaktikoa inplementatzeko gakoak eta estrategiak.</b>	○ SL KLUSTERRA-HUHEZI taldeak → BNAk prestatu.	2024.02.26 9.30-12.30	Iraupena: 3 ordu. Aurrez aurre.
				Iraupena: 1,5 ordu. BNA-koordinazioa: Prestakuntza jaso ondoren, aholkulariak bildu egingo dira, euren artean gaia lantzen jarraitzeko.
		○ BNAek → irakasleak prestatu.	2024.03.07-2024.03.22	Iraupena: 2 ordu. Aurrez aurre.

<b>2.URRATSA</b> Aste Santu ondoren	○ <b>Inplementazioa aktibatzen</b>	○ BNAek → irakasleei gogorarazi.	2024.04.08	Mezu bat bidaliko zaie irakasle guztiei gaia aktibatzeke gogoraraziz.
	○ <b>Material didaktikoaren implementazioa</b>	○ Irakasleak + ikasleak	2024.04.09-2024.05.30	Astean 4 saio eginda.
	○ <b>Jarraipen-saioak</b>	BNAek + irakasleekin jarraipen saioak.	2024.04.17-2024.04.26 bitartean.	Iraupena: 45´ saio bakoitzak. Online.
		○ SL KLUSTERRA-HUHEZI taldeak + BNAk jarraipen saioa.	2024.04.29 9.30-10.30	AH-koordinazioa: Berba-lapiko taldearekin elkartu aurretik, aholkulariek implementazioaren harira sortutako zalantzak partekatu, bildu... Iraupena: ordu 1. Online.
<b>3.URRATSA</b> Ikasturte amaieran	○ <b>Esperientziaren balorazioa prestakuntza prozesuaren gainean eta erabilitako materialaren gainean.</b>	○ BNAek → ikastetxeekin balorazioa betetzeko bidali.	2024ko maiatzaren 20ko astean.	Galdetegia.
		○ BNAek → ikastetxeekin itxiera.	2024ko ekaineko azken bi astetan.	Aurrez aurre. Saiora galdetegia beteta ekarriko dute. Elkarrizketa formatuan itxiera.
		○ SL KLUSTERRA-HUHEZI taldeak + BNAk balorazioa.	2024.07.01 9.30-11.00	Iraupena: 1,5 ordu. Online.

Berritzeguneko teknikariek ikastetxean erabili duten materiala guk prestatu dugu, haien lana errazteko. Horrela, bai ahozko hizkuntzaren didaktikaren oinarriak, bai materiala inplementatzeko metodologiak eta baliabideak eskaini zaizkie teknikariei saioz saio, eta haiekin landu direnak izan dira gero beraiek ikastetxeetan landu behar izan dituztenak.

Prestakuntza prozesu hau behar bezala egituratzeko, goiko taulan ikus daitekeen moduan, honakoak dira bete diren lanak.

1. Antolaketa eta koordinazio-lanak burutu: taldeak osatzeko irizpideak markatu, talde ezberdinak koordinatu, ikastetxeen aukeraketa egin, datak jarri eta harremanetarako bideak sortu behar izan dira. Era berean, arduren banaketa ere antolatu da.
2. Prestakuntza-prozesua diseinatu: saioen denboralizazioa, helburuak nahiz materialak. Materialetan, guk teknikariek erabili dituenak nahiz teknikariek ikastetxeetan behar izan dituenak prestatzea da helburua.
3. Diseinatutako prestakuntza sozializatu partaide izan diren teknikariek. Era berean, sozializazio-saio hori prestakuntzan zehar baliatu den metodologia kontrastatzeko ere baliatu da.
4. Jarraipen saioak egin ditugu, aholkularien nahiz irakasleen prestakuntzari buruzko zalantzei, zailtasunei, kezkari edota kasuistika ezberdinei irtenbidea ematen laguntzeko.
5. Ebaluazio-bideak diseinatu eta prestatu. Ondorioz, ikastetxe gehiagotara zabaltzeko nahiz plataforma digitalean jartzeko formazio-pilulak eta materialak egokitu egin dira balizko oztopo horiei erantzuteko.

### 1.3 IRAKASLEEN BALORAZIOAK

2023-24 ikasturtearen amaierarekin batera, ekainean proiektuan parte hartu duten irakasleen balorazioak jaso dira. Hona hemen prozesu horren datu zenbait:

- Balorazio prozesuan, **27 ikastetxek** hartu dute parte, eta guztira **77 irakasleren** balorazioa jaso da. Metodologian aritu direnek **inkesta** bat bete behar izan dute online (70 irakaslek). Ikerketan parte hartu dutenei **aurrez aurreko elkarrizketa** egin zaie haien balorazioa modu zehatzagoan jasotzeko (7 irakasleri). Kasu honetan, landuko diren gaiak aurreratu zaizkie haiek aldeztatik hausnartzeko tartea izateko eta ebaluazioa ahalik eta sakonena eta osatuena izateko. Saioak 45 minutu ingurukoak izan dira, eta audioz grabatu dira.
- Balorazioaren **helburua** hauxe izan da: Berba-lapikoko errutinen esperientziaren amaierara iristear egonda, **irakasleen ahotsak jaso** eta benetan egindako prozesuaz eta ibilbideaz pentsatzen duten hori gurekin partekatzea, esperientzia nola bizi izan duten jakiteaz gain, aurrera begira hobekuntzak egiteko. Horretarako, hurrengo alderdietan jarri da fokua:
  - Metodologiaren inplementazioan

- Metodologiak izandako harreran, bai irakasleengandik, bai ikasleengandik
- Irakasleek metodologia ikasgelan inplementatzeko jaso duten prestakuntzan
- Proiektuaren balorazio orokorrean eta datorren urteari begirako proposamenetan

Irakasleen balorazioak behin jasota eta hustuketa eginda, corpusaren analisi bai kuantitatiboa bai kualitatiboa egin da. Jarraian, horren analisiaren emaitzak eta ondorio orokor batzuk jaso dira.

### 1.3.1 Metodologiaren inplementazioa

Metodologiaren inplementazioari buruz, irakasleek hurrengo ekarpenak egin dituzte.

- **Metodologiari eskainitako tartea eta ordutegia aldakorrak izan dira.**

Metodologiari eskainitako batez besteko denbora 20-45 minutukoa izan da. 20 minututik beherako saioak egin dituenik ez da egon baina batzuek 45 minutu baina gehiagoko saioak egin dituztela aipatu dute, umeak oso gustura egon direlako eta hausnarketa interesgarriak irten direlako.

---

*“Ta musika jarri, eseri, ez dakit zer, ongi etorria eta luzatzen da, gainera 25 ikaslerekin. Nahiz eta horrela ez planteatu luzatzen da. 25 minututan ezinezkoa da” (C ikastetxea, LH2).*

---

Ordutegiaren aldetik, batzuek goizez egin dute, beti ordu berean, eta beste batzuek arratsalde. Hala ere, behin baino gehiagotan aipatu da arratsalde haurrak nekatuta egon ohi direla eta komenigarriagoa dela goizean zehar egitea.

Bestetik, beti ordu berean egitea ia ezinezkoa dela esan dute. Nahiz eta hala egitea komeniko litzatekeen, eskolako dinamikek eta ordutegiek ez dute hori ahalbidetzen:

---

*“Ikasturte hasieran proiektua kontuan izan behar da zuzendaritzan ordutegian islatzeko, bestela oso zaila egin zait egunero ordu berean egitea daukadan ordutegiarekin” (K, LH2).*

---

*“Eskolako programazioan ez dagoela txertatua izan da zailtasunik handiena” (U, LH3) eta “batzuk ez dira burutu, edota moldatu egin dira ikastordutan lantzeko” (U, LH2).*

---

Bestetik, egutegiari dagokionez, irakasle gehienek iritziz proiektua lehenengo edo bigarren hiruhilekora aurreratzea egokiagoa litzateke, hirugarrenean gauza asko izan ohi baitituzte eta dagoeneko nekatuta egon ohi dira horrelako proiektu bat egokiro aurrera eraman ahal izateko:

---

*“Bukaeran ez dut sentrazio bera. Onartu behar dut nekatuta gaudela denok. Tartean txangoak, errutina aldaketak, ordutegia dela eta. Nik uste dut maiatzean bukatuta egon beharko litzatekeela” (B, LH1)*

---

Hori dela eta, jarduera aurtan bigarren hiruhilekoan planteatu izana eskertu dute.

- **Maila guztietan, materialak lagungarriak, erakargarriak eta argiak izan dira irakasleentzat, "dena zegoen pausoz pauso azalduta".**

Egokitzapen zehatz batzuk egitea proposatu arren, orokorrean, irakasleen ustez, saioak argiki bideratuta eta materialak ondo antolatuta daude eta lagungarriak eta erabilgarriak dira:

---

*"Materiala oso ondo dago prestatua eta ezinbestekoa izan da, gure egunerokoan kalitatezko hezkuntza eskaintzeko" (S, LH2)*

*"Oso lagungarria izan da, oso argi azalduta dago, zer eta nola egin" (Y, LH1)*

*"Asko lagundu dit. Eta ahozotasuna lantzeko ideia berriak eskeini dizkit" (B, LH1)*

---

Hala ere, materiala eguneratzeko beharra ere aipatu da hainbatetan:

---

*"Euskarri batzuk guk sortu behar izan ditugunez, esango nuke materiala eskas zela zenbait jardueretarako" (U, LH1)*

*"Gidoiak haurrentzat bisualki beste era batean izatea falta izan dut. Infografiak..." (Z, LH3)*

*"Lagungarria izan da, baina batzuetan ulertzeko zaila izan da. Uste dugu gida sinplifikatu daitekeela" (A, LH3)*

---

Haatik, material berberak ikastetxe batzuetan oraindik ere baliogarritasuna badutela baina beste ikastetxe batzuetan zaharkituta geratu direla ikusi da:

---

*"Pipi galtza luze, abestia eta pelikula super zaharrak dira eta haientzat oso esanguratsua ja ez da" (A, LH2)*

---

Baina bestetik, kontrako iriritzia ere jaso dugu:

---

*"Pipi asko gustatu zaie" (B, LH2).*

---

- **Oztopo nagusia denbora falta izan da bai eta taldearen kudeaketa ere.**

**Denbora falta** oztopo nabarmena izan dela identifikatu da:

---

*"Nahiz eta gidatutako proiektu bat izan denbora luze eskeini behar izan diogula eta gure ikasleak oso euskaldunak izanik ez diote espero genuen etekinik atera" (C, LH2)*

*"Lan handia dela hau guztia prestatzea eta denbora gutxi daukagula hau egiteko. Gainera, eguneroko dinamika bat denez, egun batetik bestera gogoratu edo prestatu behar duzu hurrengo egunean egin beharrekoa eta hori nekagarria da." (I, LH2)*

---

Beste zailtasunetako bat **taldearen kudeaketa** izan da:

---

*"Gurean igual sentsazioa izan da produkzioak asko luzatu direla batetik bestera berriro isildu behar izan garelako edo arauak esan eta esan azkenean igual bukatu orduko, ba hori, hoge minutu eta*

---

*oraindik hasi gabe geroko lanketa. Baina ere bai, ba hori, borrokan edo ibili behar izan garelako” (B, LH2).*

*“Ume guztiak korroan jesarrita eta isilik mantentzea ere zaila da batzuetan” (V, LH2)*

*“Azkenean ez da bakarrik landu behar duzuna, baita sortzen diren egoerak ere. Bat hasten da negarrez, besteak mukiak behera, sortzen dira gauza pila bat mozten duzula. Ez da bakarrik planteatzen dena paperean, baizik eta gertatzen dena” (C, LH2).*

---

Taldearen kudeaketaz gainera proiektua **taldearen izaerara egokitzeko** zailtasunaz ere aritu dira irakasle batzuk:

*“Lehenengo saioetan aspertu egin dira, talde euskalduna baita eta egitura oinarritzkoak” (U, LH1); iritzi hori bildu dugu talde euskalduna izan duten irakasleen ahotik.*

*“Gure kasuan beharbada umeen euskara maila altuagoa zenez, materiala edo eskakizun maila egokitu, aberastu, osatu behar izan dugu” (Ñ, LH2)*

---

Aurreko zailtasun horrez gainera, taldearen izaerara ez ezik **ikasle bakoitzaren beharretara egokitzeko** zailtasuna ere agertu da balorazioetan:

*“Kasuistika ezberdinak daude. Batek daukala hiperaktibitatea, besteari jarri behar zaizkiola gauza guztiak pantailan bai ala bai, besteari zailtasunak dituelako hizkuntzan, etab. Azkenean ezin da egin azkar, errealitatea ez da hori. 25 horien barruan egoera ezberdinak daude” (C, LH2)*

*“Hezkuntza premia bereziko ikasleei ailegatzeko zailtasunak (izan dituzte)” (Q, LH1)*

*“Metodologia honek ez du kontuan hartzen taldearen aniztasuna, nahiko zurruna da” (A, LH2)*


---

### 1.3.2 Metodologiak izandako harrera

Oro har, metodologiak **harrera ona** izan du. Irakasleei erakargarria eta dinamikoa iruditu zaie, eta ikasleak ere gustura aritu dira.

Hurrengo diagraman, metodologiari emandako puntuazioaren emaitzak jaso dira. Ikusten den bezala, %90ak 4 eta 5 puntu eman dizkio metodologiari.

## Metodologiaren harrera



Jarraian, metodologiaren harrerari buruzko pertzepzioak jaso dira.

- **Ikasleek motibazioa erakutsi dute eta aktiboki hartu dute parte prozesuan.**

Ikasleek disfrutatu egin dute, motibazio handia erakutsi dute eta jarraitu egin nahi izan dute. Parte-hartzaile aktiboak izan dira eta beraien interesekoa izan da prozesua; gustura, pozik eta gogotsu parte hartu dute.

Irakasleek ikasleak disfrutatzen ikusi dituzte:

*“Motibazioa izan dutelako, txandak errespetatu eta hitz egiteko gogoz azaldu direlako, Berba-lapiko noiz izango zen galdetzean, entzute aktiboa praktikan jarri dutenean...” (W, LH2)*

*“Parte hartze handia ikusi dugu, inplikazioa, motibazioa...” (Q, LH1)*

*“Jardueretako batzuk errepikatzeko eskatzen zuten” (X, LH1)*

Bestetik, ikasleek beldurrak atzean utzi dituztela eta ausardia gehiagoz aritzen direla ere nabarmendu dute:

*“Nahiz eta akatsak egin gero eta gehiago ekoizten dute.” (AA, LH4)*

*“Euskara erabiltzera ausartu dira batzuk, batzutan auto-zuzenketa egiteko gaitasuna garatu dute ...” (BB, LH4)*

*“Eta euskara ama hizkuntza dutenek (nire gelan 5 ume) animatzen eta laguntzen zieten besteei. Orokorrean hobekuntza sumatu da eta landutako esaldien egiturak barneratu dituzte” (CC, LH1)*

Hala ere, parte hartzearekin lotuta, ikasleen artean inplikazio maila ezberdinak egon direla ere azpimarratu da:

*“Oso gustura egon dira ekintza hau egiten, baina betikoek, zerbait prestatu behar zutenean kexatu dira, modu txar batean egin dute eta etxean ez dutenez izan inolako jarraipenik ezta laguntzarik bai zailtasunak gero eta handiagoak izan dira ikusita besteek egindako lana eta ahalegina” (CC, LH4).*

- **Erritmo oso ezberdinak egon diren arren, hobekuntza nabaritu da ikasleen ahozko ekoizpenean; bereziki maila baxua dutenen artean.**

Adibidez, hurrengo aipatu dute:

*“Ahozko ekoizpenean zailtasun handienak izaten zituzten ikasleentzat erronka zailtasuna... izan da eta, aldi berean, hauexek izan dira bukaeran hobekuntza-maila handiagoa lortu dutenak” (Z, LH4)*

*“Egiturak gaizki formulatzen zituzten baina bukaeran zuzen erabiltzen dituzte eta besteei zuzenketak egiten dizkiete” (Q, LH1)*

**Hobekuntzak**, batez ere, **hiztegian** eman dira eta baita **diskurtsoaren egituraketan** ere. Gramatikan eta batez ere aditzen erabileran ez da hobekuntza handirik nabaritu.

Halaber, egon dira hobekuntza nabarmenik sumatu ez dutenak ere:

*“Ez dugu hobekuntza handirik nabaritu. Irakasleek erantzun mekanikoki ikasten dute baina ez dute transferentziarik egiten” (BB, LH2).*

Kezka hori gehiagotan ere agertu da:

*“Nik eduki det sentsazioa kopiaketa handia egon dela, euskara maila hemen dagoen maila baina pixka bat gorago dagoena aurretik jartzen baldin banun beste denak berdina egiten zutela, kopiatu egiten ziotela. Baina gero hemendik ateratzen da eta ez dio ezertarako balio” (B, LH2).*

- **Ahokotasuna lantzeko sistematizazioa ezinbestekotzat jo dute irakasleek eta Berba-lapikok hizkuntza betaurrekoak jartzen lagundu die.**

Sistematizazioaren garrantzia behin eta berriro agertu da galdetegiko emaitzetan, irakasleak oso eskertuta daudela adierazi dute eta Berba-lapiko ahokotasuna lantzeko oso baliagarria izan zaiela adierazi dute. Irakasleek bakarrik ez, haiek ere gaitasunak eskuratu dituztela diote. Proiektuan hasi aurretik ahokoa lantzen zuten arren, Berba-lapikok hizkuntza betaurrekoak jartzen lagundu diela aitortu dute. Esan dezakegu proiektuak nolabaiteko kontzientzia piztu duela irakasleen artean.

*“Ez nuen hainbeste kontuan izaten testuinguruaren garrantzia, testuingurua hainbeste zaintzea ez nuen kontuan izaten... eta honen garrantziaz orain konturatu naiz” (AA, LH4).*


*“Ikasturte hasieratik, goizeko lehen saioaren zati bat korroaren bidezko ahozkotasunera bideratuta geneukan arren, konturatu naiz garrantzitsua dela giro lasaia bilatzea eta haur bakoitzari komunikatzeko une bat eskaintzea; izan ere, proiektua aurrera eraman aurretik, eguneko arduradunak eta betiko haurrek bakarrik hitz egiten zuten” (CC, LH1).*

*“Argi izan dut zer ebaluatu behar nuen, eta zer landu. Berba-lapiko egin baino lehen kostatzen zitzaidan jakitea zer ebaluatu, ahozkoaren arloa oso zabala delako eta galduta sentitzen nintzen” (Y, LH1).*

*“Asko ikasi dut proiektu honekin. Batez ere, egin diren jarduera guztiak nire lanean kontuan izango ditut hemendik aurrera, adibidez: ipuin bat nola landu daitekeen mintzamina sustatzeko. Eta, halaber, jarduera baten sarrerako abestia bezalako teknikak, pazientzia handiagoa izaten... eta, batez ere, hemendik aurrera benetan saiatuko naizela ikasleei pentsatzeko eta hitz egiteko denbora gehiago uzten. Konturatu naiz, hain txikiak izan arren, gauza bera modu askotan landu daitekeela haiekin, eta aurrera eramateko gai direla” (X, LH1)*

### 1.3.3 Prestakuntza

Oro har, **jasotako prestakuntzaren balorazioa ona** izan da. Hurrengo diagraman prestakuntzari emandako puntuazioaren emaitzak jaso dira. Ikusten den bezala, %72,9ak 4 eta 5 puntuko nota eman dio prestakuntzari.



- **Prestatzailearen lana eta eskaintako laguntza gertukoa, primerakoa, argia eta egokia izan dela esan dute irakasleek; adjektibo horiekin definitu dute prestakuntza.**

Orokorrean, aholkularien lana goraiatu dute:

*“Prestatzailearen lana oso lagungarria izan da, oso gertu egon dira beti, eta laguntzeko prest” (CC, LH4)*

Hala ere, materiala ulertzeko lan handia egin behar izan dutela ere aipatu dute:

*“Azaltzen dizute zelan erabiltzen den materiala (orriak), baina azkenean materiala zuk prestatu behar duzu zure kabuz eta lan handia ematen du horrek material asko prestatu behar direlako” (V, LH2)*

Horregatik, prestaketan materiala erreparatzeari denbora gehiago eskaini beharko litzaiokeela azpimarratu dute:

*“Berba-lapiko proiektuan egunez egun egin beharreko formakuntzetan aztertzea gomendagarriak izango lirateke. Beraz, formakuntza saio gehiago izan beharko lituzke.” (N, LH4)*

*“Prestakuntzari dagokionean, niri bai gustatuko litzaidake agian estrategia gehiago, sakontzea gehiago arlo pedagogikoan ahozkotasanari dagokionez, edo azaltzea ondo zer egin behar den dinamika bakoitzean, nola eraman aurrera” (B, LH2).*

- **Prestakuntzaren gainean azaleratu diren oztopo nagusiak logistika kontuak eta eskainitako denboraren ingurukoak izan dira.**

Logistikaz honako iritzia partekatzen da orohar:

*“Alde batetik, prestakuntzak ikastetxean bertan eta eskolako ordu eskusiboetan egin ahal izateak asko erraztuko luke lana. Bestetik, proiektuan berriak diren irakasleei zuzenduta egotea egokiago ikusten dugu. Berriak ez garenontzat, dudak edo iradokizunak partekatzeke harremanetarako pertsona bat edukitzearekin aski genuke.” (U, LH2)*

Bestetik, badaude prestakuntzari denbora gehiago eskaini behar zaiola uste dutenak ere:


*“Denbora gehiago eskaintzea merezi du materiala ikusteari. Formakuntza saioak, 4 izatea, 2 teoria eta 2 materialaren ikustea. Materiala hobeto begiratzea komeni zaigu guztioi eta denbora tarte hori formakuntzan eskaintzea, ulermen egokia bermatzeko” (W, LH2)*

Prestakuntza teorikoen delako iritzia ere partekatua da:

*“Marko teorikoari hainbeste garrantzi eman beharrean, ikastaroko saioak alderdi praktikora gehiago bideratzea” (Ñ, LH1) egokiagoa litzatekeela uste dute.*

### 1.3.4 Balorazio orokorra eta proposamen batzuk

Oro har, **balorazio orokorra ona** izan da. Hurrengo diagraman ikusten den bezala, %72,9ak 8, 9 eta 10 puntuko nota eman dio prestakuntzari.



- **Irakasleek balorazio positiboa egiten dute: gehienek datorren urtean jarraitu nahi dute.**

Nahiz eta lan karga handiagoa ekarri duela aitortu, irakasleak gustura aritu dira eta gehienak datorren urtean jarraitzeko prest daude (% 87). Ahozko tasuna lantzea beharrezkotzat jotzen dute, eta horretarako, metodologia lagungarria egin zaie. Irakasleak ere gustura ikusi dituzte eta lan karga handia suposatzen duen arren balantze positiboa egin dute. Hasiberriak ez direnak, esperientziak eta proiektua ikastetxean integratzeak geroz eta erosoago sentiarazten dituztela ere azpimarratu dute:

*“Iaz ez genekien zer zen oso ondo eta murgildu ginen pixka bat jakin gabe zer zen eta aurten bagenekien” (C, LH2)*

*“Presentzia gehiago ari da hartzen eskolan eta hori guretzat izan da esatea joe ya ez gaude proiektu honetan bakarrik” (C, LH2)*

Aurrerapen nabarmena nabaritu dutela diote eta esfortzu handia eskatzen duen arren, merezi duela uste dute:

*“Aurrerapena ikusi badut hiruhileko batean, ikasturtero lan egiten badugu askoz gehiago izango litzateke aurrerapena.” (Y, LH1)*

*“Irakasleek asko ikasi eta gozatu dutelako. Beraiekin egindako azken galdetegian, argi utzi dute proiektu honekin jarraitu nahi dutela, euren jarduerak, jolasak... eginez eta batez ere euskara gehiago ikasiz. Beraiek dira lehenengo inplikatuak, eta beraientzat erabilgarria eta atsegina izan bada, primeran irudituko litzaidake horrekin jarraitzea.” (X, LH1)*

*“Euskaraz gehiago hitz egiten dutelako eta ausardia garatu dutelako euskaraz hitz egiteko. Esaldien egiturak barneratu dituztelako eta erabiltzen ari direlako, baita idatzian ere. Eskemak lagungarriak dira ahozkoa lantzeko eta idatzizkoa egiteko” (W, LH2)*

*“Maila bajua duten ikasleentzat lagungarria izan delako. Besteentzat ariketa arrunta izan da, baina polita” (C, LH1)*

---

Horrez gain, metodologia eskolako dinamikan txertatzea beharrezkoa dela azpimarratu dute:

*“Eskolako beste batzuk inplikatur konturatu ziren denbora behar zela Berba-lapiko antolatzeke eta guk ere eskertu dezu ze iaz bakarrik geunden honetan ez genuen denborarik izan honetarako, inork ez zekien zer egiten ari ginen, baina aurten formakuntzara ikasketa burua etorri zen, koordinatzailea bigarren ziklokoa eta guk eskertu genuen pila bat. Esan ziguten hartu ordu batzuk antolatzeke ze iaz ez genuen eduki eta behar da ze azkenean ez da guk sortutako zerbait eta irakurri behar da, mamitu behar da, sinistu behar da... bereganatu egin behar duzu, bestela ezin da aurrera eraman” (C, LH2).*

*“Izan da dauzkagun beste mila gauzen artean kokatu dugun beste gauza bat “a calzador”. Edo kentzen duzu beste gauza bat eta hau sartzen duzu eta sakontasun gehiago ematen diozu edo nik aurten sentazioa eduki dut positiboa izan dela gauza askotan baina negatiboa ere bai, sakontasun gutxirekin sartuta eta “con calzador” (B, LH2)*

---

## 2 DIGITALIZAZIOA

Hedapenarekin batera, ezinbestekoa iruditu zaigu maila digitalean salto kualitatibo bat ematea. Egun, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) tresna indartsuak ditugu jakintza sustatzeko, ez soilik ikasleentzat, baita irakasleentzat ere. Beraz, arlo digitalari garrantzia eman nahi izan zaio, proiektua bera, eta honen eragina zabaltzeko asmoz, funtzionamendu autonomo bat bultzatuz. Hau da, hezkuntza komunitateko edonork aparteko aholkularitarik gabe Berba-lapiko egitasmoko metodologiak inplementatzeko aukera izatea bilatzen da.

Xede hori lehenetsita, eta iazko lanei jarraipena emanez, 2024an egindako bidea jaso dugu jarraian.

### 2.1 AURTENGO LANAK

Lan-ildo honetan aurreikusitako eginkizunak egin dira eta datorren urteko lan batzuk ere martxan daude.

- **Lantaldea finkatu** dugu eta **elkarlanean** aritu gara **Moodleko hezurdura eta edukia lantzen**. Alderdi digitala lantzeko, garrantzitsua da Hezkuntzan dabilzan aholkularien ikuspegia ere txertatzea. Hori dela eta, hasieratik lantalde bat sortzea irudikatu da, diseinu eta erabaki didaktikoetan aholkularien esperientzia eta ekarpenak jasotzeko. Iazko bilerei jarraipena emanez, Berritzegune Nagusiko aholkulari batekin lantaldean egotea adostu da eta UEUko aholkularitza zerbitzua kontratatu da.

Urtean zehar, hainbat aurrez aurreko eta online lan-saio antolatu dira:

- 2024.04.16 UEU Eibar
- 2024.05.16 UEU Eibar
- 2024.06.19 UEU Eibar
- 2024.07.03 UEU Eibar
- 2024.07.23 Online
- 2024.09.20 Online
- 2024.10.03 UEU Eibar
- 2024.11.18: Online
- Lehenengo bileretan, **kronograma** adostu zen eta hortik aurrera aurreikusitako lanak burutu dira:

2024ko <b>apirila</b>	<b>1. Azterketa</b> Udako Euskal Unibertsitateak (UEUK) Berba-lapiko proiektuaren aurrez aurreko formazioa, Berritzeguneak onlineran eramateko finkatutako egitura eta Berba-lapiko taldeak (Soziolinguistika Klusterra eta HUHEZI) egindako online formaturako proposamena aztertuko ditu.
2024ko <b>apirila-maiatza</b>	<b>2. Online egitura didaktikoa</b> Berba-lapiko taldea, Berritzegunea eta UEUK osatutako lantaldeak (3LT), Berba-lapiko proiektuaren onlinerako

	egitura didaktiko egokiena diseinatuko du (hezurdura orokorra).
2024ko <b>maiatza-azaroa</b>	<b>3. Online bihurketa</b> Hezurdura hori oinarri hartuta, fasez fase online planteamendua zehazten eta onlinera eramaten joango da, paraleloan. Berba-lapiko taldearen eta Berritzegunearen artean edukizko baliabideak sortzen joango dira, eta UEUK Moodle instantzian ikastaroaren muntaia egin eta hornituko du.
2024ko <b>abendua</b>	<b>4. Kontrastea</b> 3LTan UEUK prestatutako Moodle ikastaroa aztertuko da, eta ekarpenak egingo dira.

- **Plataformaren izaera berretsi da.** Hezkuntza komunitate osoarentzat baliagarri izango den euskarria sortzea da helburu nagusia. Horretarako, lehenik euskarriaren funtsa eta izaera argitu behar izan dira. Erabiltzaileak modu autonomoan baliatzeko tresna izango denez, Moodle ikastaroaren **errelatoa** ere landu da.
- **Formatuari dagokionez,** Hezkuntza Sailak aukeratutako ereduari jarraitu diogu, hau da, edukia LAUSAKA antolatuta egongo da. **Tutorizatze maila** erdibideko zerbait izango da: hau da, ez da ez guztiz tutorizatu ez guztiz autonomia izango: *asinkrono* eta *sinkrono* jarduerak tartekatuko dira. Alde batetik, ikastariak ariketak egingo dituzte haien kabuz, eta, bestetik, lan horren jarraipena egingo zaie eta aurrez aurreko saio bat ere egingo dute aholkulariekin landutako edukia barneratzen laguntzeko. **Komunikatzeko aukera** ere izango dute: albisteak, abisuak, arazo teknikoak berri emateko guneak, egutegia data garrantzitsuekin, mezuak zuzeneko harremanetarako eta, foroa, beste ikastariarekin partekatuzeko.

**Estrukturari dagokionez,** 6 fase egongo dira:

- 1 FASEA: Proiektua eta ikastaroa aurkeztuko dira.
- 2 FASEA: Ahozko hizkuntza lantzeko oinarrikoak diren alderdiak landuko dira.
- 3 FASEA: Berba-lapiko proiektuko metodologiak landuko dira: Hizkuntza-Errutina eta Sekuentzia Didaktikoa. Metodologia aurkeztu eta material didaktikoak banatu eta eskuztatzen hasiko da ikastaria.
- 4 FASEA: Behin metodologia eta material didaktikoa ezagututa, materiala gela barruan inplementatzeko zenbait gako landuko dira, hau da, ikasleekin elkarrekintza-estrategiak landuko dira. Fase honetan aurrez aurreko saioa antolatuko da.
- 5 FASEA: Materialak eta estrategiak behin landuta, irakasleek gelan ezarriko dute metodologia eta jarraipena egingo zaie.
- 6 FASEA: Amaierako galdetegia ikastaroaren edukiei buruz egingo dugu eta, amaitzeko, ikastariaren balorazioa jasoko dugu.

1 eta 2 faseak ikastari guztiek egingo dituzte (ikastaroaren aurkezpena eta prestakuntza orokorra) eta 3 fasean bideak sakabanatuko dira, era horretan, ikastari bakoitzak bere mailako materiala landuz joango da hurrengo faseetan.

Edukiaren antolamendua Hezkuntza sailak baliatu duen estrukturan oinarritutakoa da. Hiru zeregin mota daude: **edukia** (ad. bideo pilulak, testu bat, aurkezpen bat); **zeregina** (edo atazak, ad. egin behar dituzten ariketak); eta **metakognizioa** (landutakoari buruzko hausnarketa-ariketak ikasitakoa barneratzeko). Zeregin horiek lantzeko, euskarri desberdinak erabiliko dira: testuak, artikulak, ikus-entzunezkoak...

Ikastaroaren behin-behineko hezurdura jaso da aurkibidean. Bertan, Moodle-ren edukia azaltzen da fasez fase:

<b>(KANPOAN)</b> .....	<b>4</b>
HARREMANETARAKO .....	4
GLOSARIOA: ZERRENDA INTERAKTIBOA .....	4
<b>1 FASEA: HARRERA (LH1-6)</b> .....	<b>5</b>
1.1 SARRERA.....	5
1.1.1 EDUKIA: Ongi etorri Berba-lapikora! (bideoa).....	5
1.1.2 ZEREGINA: Hasierako galdetegia .....	5
1.1.3 EDUKIA: Ikastaroaren aurkezpena (bideoa) .....	5
1.1.4 EDUKIA: Berba-lapiko proiektuaren kokapena (bideoa).....	6
<b>2 FASEA: OINARRIAK (LH1-6)</b> .....	<b>9</b>
2.1 HIZKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA.....	9
2.1.1 EDUKIA: Hizkuntza mundua ikusteko modu bat (bideoa) .....	9
2.2 BERBA-LAPIKO METODOLOGIAREN OINARRIAK: KOMUNIKAZIO ERREALA ARDATZ .....	9
2.2.1 ZEREGINA: Hizkuntzak irakasteko ikusmoldeak aztergai .....	9
2.2.2 EDUKIA: Ikuspegi soziodiskurtsiboa (bideoa) eta Testu generoak ardatz (ppta + audio) .....	10
2.2.3 METAKOGNIZIOA: Ikuspegi soziodiskurtsiboa barneratuz eta Egoera komunikatiboak lantzen (PPT + audio).....	11
2.3 AHOZKO HIZKUNTZAREN OINARRIAK.....	12
2.3.1 ARIKETA: Ikasleen ahozko ekoizpenak behatuz (bideoa).....	12
2.3.2 METAKOGNIZIOA: Ahozkoaren azterketarako irizpideak zehaztuz (ariketa).....	12
<b>3 FASEA: METODOLOGIAREN LANKETA (BIDEAK: LH1-4 / LH5-6)</b> .....	<b>14</b>
3.1 SEKUENTZIA DIDAKTIKOA METODOLOGIA EZAGUTUZ (LH5-6) .....	14
3.2 HIZKUNTZA-ERRUTINA METODOLOGIA EZAGUTUZ (LH1-4).....	14
3.2.1 EDUKIA: Hizkuntza-errutina metodologiaren azalpena (bideoa) .....	14
3.2.2 ZEREGINA: Hizkuntza-errutina metodologia landuz (ariketa) .....	14
3.2.3 METAKOGNIZIOA: Hizkuntza-errutina metodologia barneratuz (testua) 14	
3.2.4 METAKOGNIZIOA: Gogora ekarriz: Egoera komunikatiboak materialetan 15	
3.3 EREDUAREN GARRANTZIA AZTERTUZ.....	16
3.3.1 EDUKIA: Irakasle baten eredia (audioa).....	16
3.3.2 ZEREGINA: Eredua zergatik eta zertarako? (ariketa) .....	16
3.3.3 METAKOGNIZIOA: Ereduren garrantzia .....	17

<b>4 FASEA: GELARA ERAMATEKO PRESTAKUNTZA</b> .....	<b>18</b>
4.1 MATERIALA EZAGUTZEN .....	18
4.1.1 EDUKIA: Material didaktikoak ezagutuz .....	18
4.1.2 ZEREGINA: "Hizkuntza betaurrekoak" jarrita .....	19
4.1.3 METAKOGNIZIOA: "Hizkuntza betaurrekoak" finduz (SINKRONO 90') .....	21
4.2 ELKARREKINTZARAKO ESTRATEGIAK LANTZEN.....	23
4.2.1 EDUKIA: Elkarrekintzaren izaera eta dimentsioak (bideoa) .....	23
4.2.2 METAKOGNIZIOA: Elkarrekintza: dimentsio anitzeko fenomenoak (ariketa).....	25
4.2.3 ZEREGINA: Elkarrekintza praktikan (SINKRONO 90') .....	25
4.2.4 ZEREGINA: Elkarrekintzaren diseinua H. Errutinaren metodologian: material didaktikoan .....	28
<b>5 FASEA: GELAN PRAKTIKAN JARTZEN</b> .....	<b>29</b>
5.1.1 EDUKIA: Gelan praktikan jarri aurretik .....	29
5.1.2 ZEREGINA: (Aukeran) Ikasleen ekoizpenak ebaluatzeko aukera (1. zatia) .....	29
5.1.3 ZEREGINA: Gelan praktikan jartzen (SINKRONO 90') .....	30
5.1.4 ZEREGINA: (Aukeran) Ikasleen ekoizpenak ebaluatzeko aukera (2. zatia) .....	30
<b>6 FASEA: AMAIERA (LH1-4/LH5-6)</b> .....	<b>31</b>
6.1 GALDETEGIA .....	31
6.1.1 ZEREGINA: Ikastaroaren galdetegia .....	31
6.1.2 ZEREGINA: Autoebaluazioa .....	31
6.2 BALORAZIOA.....	31
6.2.1 ZEREGINA: Ikastaroaren balorazioa .....	31

- Moodle ikastaroa diseinatzeko orain arte emandako prestakuntza oinarri erabili den arren, plataforma elikatzeko **eduki berria** garatzeko beharra ikusi da. Aurtengo lanen artean, bideoak eta beste ikus-entzunezko batzuk sortzen hasi gara eta lan horretan jarraitzea aurreikusten da datorren urtean.
- **Materialetan egokitzapenak egiten** ere jarraitu dugu: Material didaktiko horiek sarean jartzeko eta erabiltzeko egokitu behar dira.
  - Edukiaren aldetik hainbat lan egin behar dira: besteak beste, ariketak birpasatu, akats ortografikoak, irudiak, jabetza intelektuala, inbentarioak...
  - Aholkularitza didaktikoa ere bilatu da: argialetxe desberdinak kontaktatu ditugu. Berritzegune Nagusiarekin ere adostuko dugu aholkularitza didaktikoa egingo dutela.

### 3 ONDORIO NAGUSIAK

Jarraian 2024an egindako lanetatik ateratako ondorio nagusiak jaso dira:

- **Hedatze prozesua arrakastatsua izan da:** 2024an parte hartu duten ikastetxe gehienek datorren ikasturtean jarraitzeko gogoia adierazi dute. Balorazioei esker identifikatu dira arrakasta izateko ezinbestekoak izan diren zenbait osagai: irakasleekiko gertutasuna, bereziki, Berritzegune Nagusiko Aholkularien laguntza; hasieratik ikastetxeekin adostutako antolaketarekin bete izana, eta, gaiari jarraipena emateko aukera eskaini izana.
- **Talde-lanaren beharra eta eraginkortasuna agerikoa izan da, beti ere prestakuntza ardatz izanik:** proiektuaren hedapen fasean *Berba-lapiko taldea-BNA-irakasleak* taldearen funtzionamendua eta kohesioa giltzarri izan dira. Are gehiago, talde honi esker prestakuntzak hartu duen indarra eta izaera azpimarratu beharra dago.
- **Berba-lapikori buruzko balorazio positiboa egin dute:** hasierako denbora faltari buruzko zailtasunak gaingitu dituzte, eta orokorrean gustura aritu dira irakasleak zein ikasleak. Irakasleen arabera, ikasleek "benetan komunikatu beharra" sentitu dute, eta ahoz sortzen eta gozatzen ibili dira.
- **Irakasleek Hizkuntza-Errutinen metodologia eraginkorra dela berretsi dute:** alde batetik, metodologiari esker, ikasleek ahozko maila hobetu dute eta estrategia berriak irabazi dituzte. Hizkuntzarekiko jarreran ere hobekuntza sumatu dute.
- **Irakasleek ahalduntzeko pauso bat gehiago eman da:** proiektu honetan irakasleen prestakuntzak garrantzi handia izan du. Balorazioari esker ikusi da, irakasleek ikaste-objektuak argiago identifikatu dituztela, ahozkoa lantzeko eta zuzentzeko estrategia berriak eskuratuz. Irakasleek, "hizkuntza-betaurrekoak" findu dituzte bidean, eta horrek segurtasuna eman die, adierazi dutenez.
- **Era berean, bai prozesuari eta material didaktikoari begira hobetzeko alderdi batzuk jaso dira:** irakasleek proposatutako aldaketak datorren urtean kontuan hartuko dira.